

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO  
EUSKAL PROGRAMA**

# **JARRAIPENeko MISIOA GUATEMALA 2015**

**Urtarrilaren 24tik 30era**



*Memoriaren Etxea, CALDH (Guatemala Hiria)*

Txostenaren egileak:

Patricia Bárcena eta Leire Lasa

**CEA(R)**  
EUSKADI  
Comisión de **Ayuda**  
al **Refugiado** en Euskadi

*Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**LEHENDAKARITZA**

Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**

Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

Bilbo, 2015

# EDUKIEN AURKIBIDEA

<b>SIGLAK</b> .....	<b>1</b>
<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>2</b>
<b>ESKER ONAK</b> .....	<b>3</b>
<b>KONPOSIZIOA</b> .....	<b>4</b>
<b>EGINDAKO BILERAK ETA BISITAK</b> .....	<b>5</b>
<b>TESTUINGURUA</b> .....	<b>7</b>
<b>ANALISI-ELEMENTUAK</b> .....	<b>14</b>
<b>GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK</b> .....	<b>14</b>
<b>SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA</b> .....	<b>26</b>
<b>EGIA, JUSTIZIA, ADISKIDETZEA ETA BERRIZ EZ GERTATZEKO BERMEAK</b> .....	<b>29</b>
<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>32</b>

## SIGLAK

ACNUR: Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataria

AECID: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia

AHPN: Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoa

AVCD: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

CALDH: Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa

CEH: Gertakari Historikoak Argitzeko Batzordea

COPREDEH: Presidentearen Giza Eskubideen Batzordea

INACIF: Zientzia Forentseen Institutu Nazionala

GGI: Giza Garapenaren indizea

LGTTBI: Lesbianak, Gayak, Transexualak, Transgeneroa, Bisexualak eta Intersexualak

NBGEKGB: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa

PBI: Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)

PDH: Giza Eskubideen Prokuradoretza

NBGE: Nazio Batuen Garapenerako Egitaraua

UDEFEGUA: Guatemalako giza eskubideen defendatzaileak babesteko unitatea

URNG: Guatemalako Unitate Iraultzaile Nazionala

## AURKEZPENA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011tik, *Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programa*. Programa horren barruan, gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituzten laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, Euskadin emango dituzten sei hilabeteetan, ekintza hauek proposatzen dira:

1. Ikuspegi psikosoziala: Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Programa hau gauzatzeko, politikoki eragin beharko da; aldi baterako babesak, bestela, ez du zentzu osoa izango. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horretaz gainera, programak balio du euskal herritarrei eta bertako erakunde publikoei —berdin Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: Haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenaz. Egin duten lanagatik aitortza jaso duten pertsonak direla kontuan izanda, txostengile gisa ere hartuko dute parte esparru akademikoetan eta sozialetan.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du, eta hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere sartuta daude programan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroa. Gainera, Ansur Kolektiboaren laguntza du, segurtasunarekin eta babesarekin zerikusia duten kontuak kudeatzeko.

Programan parte hartu duen pertsonetako bat, LGTTBI biztanleen giza eskubideen defendatzaile bat, bere herrialdera itzuli denean, erkidegoko ordezkari bat joan da Guatemalara 2015eko urtarrilaren 24tik30era, egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, segurtasun-sarea indartzeko eta gobernuaren, legebiltzarraren eta antolatzaileen laguntza agerian jartzeko.

Txosten honetan bisitako konturik esanguratsuenak jasotzen dira. *Testuingurua* atalean, herrialdearen ikuspegi orokorra ematen da. Giza eskubideen eta eskubide sozialen erakundeetatik, instituzio publikoetatik, nazioarteko organismoetatik eta misio diplomatikoetatik jasotako informazioa *Analisirako elementuak* atalaren barnealdean eta hiru multzo handitan garatuta dago: Giza Eskubideen Defendatzaileak; Sexu- eta genero-aniztasuna; Egia, Justizia, Erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak. *Ondorioak* izeneko azken atalean, Euskal Ordezkaritzaren azterketa, balorazioak, kezkek eta gomendioak datoz.

## ESKER ONAK

### TZKAT

(Maien kosmogoniaren printzipioa, Kiche-en elkarrekikotasun-printzipioa: "Ni zu naiz eta zu ni zara")

Aldi Batez Babesteko programa eragin politikodun babes tresna bat da, jazarpen eta mehatxu testuinguruetan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta ordezkariak lurra bisitatzea proposatzen dugu.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egindakoa, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal Ordezkaritzak eskerrak ematen dizkie Guatemalako giza eskubideen aldeko elkarteei, harrera egiteagatik eta beraien salaketak eta aldaketarako proposamenak partekatzeagatik. Eskerrak eman nahi dizkie bereziki Jorge López Sologaitoari (OASISeko zuzendaria), Lolita Chávezi (Kiché indigenen liderra) eta La Puya Erresistentzia Baketsuko Komunitateari, beren ausardia eta samurtasunarengatik eta biolentziaren erdian memoriarako eta bizi duinerako espazioak eraikitzeke duten konpromiso etenezinagatik.

Eskerrak era berean Guatemalako instituzioei, nazioarteko organismoei eta misio diplomatikoei, bisita honetan laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskaini diguten denborarengatik. Eskerrik asko bildutako informazioa kontrastatzen laguntzeagatik eta giza eskubideen egoerari buruzko beraien ikuspegia emateagatik.

Eskerrik asko CALDHi eta Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoari ahanzturari aukerarik ez emateagatik eta, zailtasunen erdian, herrialdeko memoria historikoa ehuntzen jarraitzeagatik.

Azkenik, gure eskerrik beroena eta miresmenik sakonena aurrera pausua eman duten biktima ikusezin horientzat, isiltasuna eta zigorgabetasuna hautsi baitituzte egia, justizia, adiskidetzea eta berriz ez gertatzeko bermeak lortzeko egin dituzten eskaerekin.

### Kaji Tulam

(*"Ahaz ez dadin"*, Memoriaren Etxea, CALDH)

## KONPOSIZIOA

### EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres (Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria)

Paul Ortega Etcheverry (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria)

Maite Garmendia Eguinoa (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,)

### EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN, BERDINTASUNAREN ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREN BATZORDEA

Maribel Vaquero Montero (Presidentea, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos)

Amaia Arregi Romarate (Euzko Abertzaleak)

Diana Carolina Urrea Herrera (EH Bildu)

José Antonio Pastor Garrido (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Andoni Iturbe Tolosa (Abokatua)

### GIZA ESKUBIDEEN ERAKAKUNDEAK

María Victoria Taberneru (Gehitu)

Patricia Bárcena García (CEAR-Euskadi)

Leire Lasa Fernández (CEAR-Euskadi)

## EGINDAKO BILERAK ETA BISITAK

GUATEMALA HIRIA	
	BILERAK
<b>Erakunde sozialak/ kolektiboak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiesaren aurrean Sexualtasun Integralari Laguntzeko Elkartea (OASIS)</li> <li>• Guatemalako Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko unitatea - UDEFEGUA</li> <li>• Nazioarteko Bake Brigadak - PBI</li> <li>• Zigorgabetasunaren aurkako Nazioarteko Plataforma (Herbehereak, Suedia eta Suitza - Erdialdeko Amerikako erakundeentzako laguntza)</li> <li>• Kriminalizazioaren aurkako Aliantza</li> <li>• Santa Maria Xalapan-go Emakumee Indigenen Elkartearen kasua - AMISMAXAJ</li> <li>• La Puya-ko Erresistentzia Baketsuko komunitatearen kasua</li> <li>• Nekazarien Garapen-Batzordearen kasua (CODECA)</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatea sustatu eta garatzeko Elkartea - CEIBA</li> <li>• "Emakumeen Sektorea" Aliantza Politikoa - APSM</li> <li>• Komunitateko Osasun-Zerbitzuen Elkartea - ASECSA</li> <li>• Nekazarien Batasunaren Batzordea - CUC</li> <li>• La Cuerda Elkarre Zibila</li> <li>• "Uk'ú'xb'é" Elkarre Maia</li> <li>• Zerbitzu Juridiko eta Sozialak - SERJUS</li> <li>• Ixil Eskualdeko Herrien Elkarre - ASAUNIXIL</li> <li>• Nekazarien Garapen-Batzordea (CODECA)</li> <li>• "Tokiko Boterea eta Garapena" Elkarre - CPDL</li> <li>• "Santiago" Garapen-Proiektua - PRODESSA</li> <li>• Guatemalako Irrati-Hezkuntzako Institutua - IGER / ISEC</li> <li>• LOQ' LAJ CH' OCH' (Lur Sakratua)</li> <li>• "Emakumea, garapenaren sortzaile" Elkartearen Kontsortzioa - AMUTED-, Emakumearen ikerketa, trebakuntza eta laguntzarako Zentroa - CICAM- eta Emakume Maien Elkarre - MAJAWIL-</li> <li>• Aukera Berriak</li> <li>• Nekazari eta Indigenen Koordinadora Nazionala - CONIC</li> <li>• Guatemalako Alargunen Koordinadora Nazionala - CONAVIGUA</li> <li>• Rigoberta Menchu Fundazioa</li> <li>• Guillermo Toriello Fundazioa</li> </ul>



<b>Banakako elkarrizketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jorge López Sologaitoa – OASIS,Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal Programan hartua.</li> <li>• Lolita Chavez - K'iche's Herrien Batzarra - CPK</li> </ul>
<b>Erakunde publikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Eskubideen Prokuradoretza. Claudia López David andrea, Lehen Prokuradore Laguntzailea, Mario Minera jauna, Bitartekaritzarako eta Gatazkak konpontzeko zuzendari nazionala.</li> <li>• Presidentearen Giza Eskubideen Batzordea - COPREDEH. Antonio Arenales Forno jn., COPREDEHeko presidente eta Bakearen Idazkaria; Rodrigo Villagrán jn., Nazioarteko kasuen zuzendaria.</li> <li>• Ministerio Publikoa. Thelma Esperanza Aldana Hernández, Guatemalako Fiskal Nagusia eta Ministerio Publikoaren Zuzendaria. Orlando López jn., Giza Eskubideen Fiskala.</li> <li>• Guatemalako Kongresuko Giza Eskubideen Batzordea. Mirza Arriaga andrea, presidentea.</li> </ul>
<b>Nazioarteko Organismoak eta misio diplomatikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa - NBGEGKB. Dense Hauser, DESCen koordinatzailea. Catalina Lleras, Giza Eskubideen arduraduna.</li> <li>• EBren Guatemalako Ordezkaritza (Filtro taldea). Jennifer Echevarria andrea, Programen arduraduna - Lankidetzat Alata</li> <li>• Espainiako Enbaxada. Manuel Lejarreta jauna, enbaxadorea. Filtro taldea. Iñigo Febrel jauna.</li> </ul>
	<b>BISITALDIAK</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoa - AHPN</li> <li>• Memoria Historikoaren Zentroa. Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa - CALDH</li> <li>• La Puya-ko Erresistentzia Baketsuko Komunitatea</li> </ul>

## TESTUINGURUA

Guatemala Erdiko Amerikan biztanle gehien dituen herrialdea da eta 16,1 milioi biztanle dauzka 2015ean, estimazioen arabera (% 51,1 emakumeak eta % 48,9 gizonezkoak). Herrialdea multietniko, kulturantzun eta eleaniztuna da. 24 hizkuntz komunitate ditu gaztelaniaz aparte (22 hizkuntza maia, garifuna eta xinca). Gainera, hiru herri indigena ditu (Maiak, Xincak eta Garifunak) eta herri Ladinoa (mestizoa, txuria, kreolea). 22 departamentu eta 338 udalerritan banatua dago eta administrazioari dagokionez oso herrialde zentralizatua da.

Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) arabera 0,628koa zen Giza Garapen Indizea (GGI) 2013an, inguruko herrialdeetako baxuenetakoa, eta 0,52koa Genero Desberdintasunaren Indizea. Biztanleen % 62 pobrezia multidimentsionalean bizi da, eta kopuru hori % 80raino heltzen da indigenen eta landa eremuko biztanleen artean<sup>1</sup>.

### **Historia**

1821ean, Espainiako Erresumarekiko independentzia aldarrikatu zuten. Hala ere, elite kreoleek izaera koloniala mantendu zuten, indigenen bortxazko lanean oinarritzen zen nekazaritza-eredua mantenduz.

1944ko urriaren 20ko iraultzak Jorge Ubico jeneralaren<sup>2</sup> diktadorearekin bukatu zuen. 1871tik agintean egondako diktadoreetatik azkena izan zen Ubico, eta bere agintaldiak 14 urte iraun zuen. 1944ean Juan José Arévalok irabazi zituen hauteskundeak eta 1951n bere ondorengoak, Jacobo Arbenz koronelak. Horiek izan ziren hauteskundeek ekarritako lehen botere zibil demokratikoak. Babes hori lortu zuten erdi mailako klaseen zuzendutako ikasleen, herritarren, langileen eta nekazarien mobilizazioari eta antolakuntzari esker. 1945ean Errepublikaren Konstituzioa aldarrikatu zuten.

Arbenzen gobernuak nekazaritza-erreforma bat egiten saiatu zen, Gerra Hotzaren testuinguruan, baina oligarkiak eta United Fruit Company bezalako korporazio estatubatuar handiek kontra egin zioten eta 1954ean estatu-kolpe bat eman zuten AEBren laguntzarekin, komunismoaren aurkako borrokan. Horrekin aro autoritario bat hasi zen, eta, errepresio militarra zabaldu ahala, aurreko hamarkadan eraikitako parte-hartze politiko, sozial eta ekonomikorako espazioak desagertu ziren. Horren ondorioz, 1960ko hamarkadaren erdialdean, gerrillak indartu egin ziren eta geroago Guatemalako Batasun Nazional Iraultzailea (URNG) sortu zen.

### **Barneko gatazka armatua: Ixil maien kontrako genozidioa**

Guatemalako barne gatazka armatua 36 urtez luzatu zen, 1960 eta 1996 bitartean, eta Amerika Erdialdeko biolentoenetakoa izan zen. Arorik bortitzena 1981 eta 1983 artekoa izan zen. Urte horietan, "erretako lurra" delako politika ezarri zuten Huehuetenango, Quiché, Baja Verapaz eta Chimaltenango departamentuetan. Eremu horietan indigenak bizi dira, nagusiki.

Testuinguru horretan, Guatemalako Indar Armatuak, Ameriketako Eskolaren bitartez jasotzen zuten AEBren laguntzarekin, komunismoaren aurkako politika jarri zuten abian eta Ixil etniako biztanleak, besteak beste, matxinoen aldekotzat jo eta gero, suntsitzea agindu zuten: hilketak, exekuzio estrajudizialak, lekualdatze masiboak, bortxazko desagerpenak, umeen kontrako sexu-indarkeria, oinarritzko hornigaien gabetzea, bonbardaketak eta jabetzaren suntsiketa.

---

<sup>1</sup> <http://onu.org.gt/contenido.php?ctg=1342-publicaciones>

<sup>2</sup> Ubicok AEBen laguntzarekin eskuratu zuen boterea. United Fruit Company zen Guatemalako burdin-bideen jabea (International Railways of Central America-ren bidez), Puerto Barrios, herrialdearen kosta atlantikoan dagoen portu bakarraren jabea eta portu horretara sar zitekeen karga-ontzi flota bakarraren jabea. Argindarraren ekoizpena eta banaketa Electric Bond & Share-ren monopolioa zen.

## **Bake akordioak**

1996ko abenduaren 29an amaitu zen negoziazio-prozesua eta barne gatazka armatua, Bake Sendo eta Iraunkorrerako Akordioa<sup>3</sup> sinatu zutenean. Prozesua 1987an hasi zen Álvaro Arzú presidentearen Gobernuaren eta Guatemalako Batasun Nazional Iraultzailearen (URNG) artean.

Bake Akordioen alorrean, Egiaren Batzorde bat eratzea adostu zen, lehenago El Salvadorren edo Hegoafrikan egin bezala. 1997an **Gertakari Historikoak Argitzeko Batzordea** (CEH)<sup>4</sup> jarri zen martxan. Egiaren eta Berradiskidetzearen batzorde hau Nazio Batuen baitan eratu zen eta gatazkan egindako giza eskubideen urraketak aztertzea zen bere helburua. CEHren txostenean adierazten zen 200.000 pertsona baino gehiago erail zituztela gatazkan eta horietariko 45.000 desagertuta zeudela oraindik, milioi bat pertsona lekualdatu zituztela, 600 sarraski baino gehiago izan zirela eta 400 herrixka guztiz suntsitu zituztela. Txosten horren arabera, giza-eskubideen urraketan %93 Estatuaren eta haren tolerantziarekin, oniritziarekin edo laguntzarekin jarduten ziren paramilitarren ardura ziren.

Era berean, Batzordeak ebatzi zuen 1980 eta 1983 artean Ixil maien kontrako genozidioa egin zutela.

Gainera, 100.000 emakumek baino gehiagok indarkeria sexuala jaso zuten.

1994ean, Bake Akordioak sinatu baino bi urte lehenago eta CEH martxan jarri baino hiru urte lehenago, Guatemalako Artzapezpikuaren Giza Eskubideen Bulegoak proiektu bat abiatu zuen herrialdean gertatu ziren Giza Eskubideen urraketan inguruko testigantzak jasotzeko. **REMHI proiektuak** (Memoria Historikoaren Berreskurapena) CEHren lana aurreratu nahi zuen, kultura eta ele anitzeko herrialdean eraginkortasun gehiago emanaz. "**Guatemala, Nunca Más**" izeneko azken txostenean azaltzen da Guatemalako Estatuak biktimen aldeko neurriak hartu behar dituela, gatazka armatuan izan ziren Giza Eskubideen urraketan erantzukizuna baitu. Neurri horien artean egon behar dira kalte-ordainak ordaintzea, erreparazio morala bermatzea eta egia eta memoria kolektiboaren eraikitzea. Era berean, txostenak Estuari exijitzen dio egindakoa era publikoan onartzea eta giza eskubideen urraketa masiboen erantzukizuna bere gain hartzea.

Gatazka garaiko krimenak zigorrik gabe geratu izanak konfiantza falta ekarri du gobernuarekiko eta sistema judizialarekiko. Konfiantza falta horrek gaur egunera arte jarraitzen du.

Gatazka armatu luzeak eta askotan gobernu militarren esku egon izanak Estatu eta gizartea oso militarizatuta egotea eragin du. Bake Akordioak sinatu zirenetik instituzioak indartzen joan dira, baina pobrezia eta zigorgabetasuna amaitzeko helburu estrukturalak betetzea urrun dago oraindik. Gainera, erronka politiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuak ditu oraindik herrialdeak. Akordioetan adostutako erreforma handi asko, nekazaritza-erreforma kasu, ez

---

<sup>3</sup> Bake Sendo eta Iraunkorrerako Akordioa 1996ko abenduaren 29 sinatu zen eta bakea garatzeko beharrezko oinarriak ezarri zituen, herrialdearentzako etorkizun moderno iragarritz. Akordioak borondate politikoa adierazten duten 17 puntu dauzka eta beharrezko erreferentzia izan dira ordutik honako gobernuentzat garapena sustatu eta pobrezia txikitze planak, programak eta proiektuak diseinatzerako orduan. 1996ko Bake Sendo eta Iraunkorrerako Akordioaz gain, aurreko urteetan sinatutako beste 11 akordio ere hartzen ditu bere baitan Bake Akordioak. Orain arte, instrumentu hauek ez dira epe luzeko Garapen-Plan Nazional batean islatu eta sinatu zirenetik ez zaie jarraipenik egin nazio mailan.

<sup>4</sup> Gertakari Historikoak Argitzeko Batzordea 1994ko ekainaren 23ko Osloko Akordioaren bitartez sortu zen, eta honako hauek zituen helburu: "I) Gatazkarekin lotuta izan diren Giza Eskubideen urraketak eta Guatemalako biztanleriari sufrimendua eragin dioten ekintza biolentoak argitzea, objektibotasun, ekitate eta inpartzialtasun osoz. II) Garai horretan gertatutakoaren iritzi-elementu objektiboak biltzen dituen txostena idaztea, egindako ikerketen emaitzekin eta barneko zein kanpoko faktore guztiaz bilduz. III) Guatemalan bakea eta elkartasun nazionala indartzeko asmoa duten gomendio espezifikokoak egitea. Partikularki, Batzordeak neurriak gomendatuko ditu biktimen memoria gordetzeko, elkarrekiko errespetua eta Giza Eskubideak betetzeko kultura sustatzeko eta prozesu demokratikoa indartzeko. Batzordea ez zen epaitzeko eratu, horretarako baitaude justizia-auzitegiak, baizik eta anaia arteko gerrak iraun zuen hiru hamarkadetako historia argitzeko.

ziren mamitu, ez baitzuten Kongresuan babesik. Honakoa eskatzen dute: Botere judizial independente bat indartuko duen araudia indartzea eta Giza Eskubideen inguruan Guatemalako berretsi dituen nazioarteko tratatu guztiak<sup>5</sup> era eraginkorrean aplikatzea; herri indigenen identitatea eta eskubideak onartzea; eta parte hartzea sustatzen duen eta gehiengoaren ongizateari begiratzen dion garapen sozioekonomikoa abiatzea, herritarren beharrei benetan aurre egiten diena, bakea benetan sendoa eta iraunkorra izan dadin eta justizia soziala berma dadin.

### **Genozidioagatik Epaiketa**

Bake Prozesuaren baitan, Berradiskidetze Nazionalerako Legea onartu zen 1996an, gerran parte hartu zutenentzako amnistia ezarri. Amnistia horretatik kanpo geratzen ziren, ordea, gizadiaren kontrako krimenak, genozidioa eta tortura.

2001ean, herrialdeko bost eskualdetako 22 komunitatek osatzen zuten Justizia eta Berradiskidetzarako Elkarteak (AJR), Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroaren (CALDH) laguntzarekin, salaketa jarri zuen Ministerio Publikoan Efraín Ríos Montt armadako goikarguaren aurka, estatuburu zen garaian (1982ko martxotik 1983ko abuztura bitartean) eginko genozidioagatik, gerra-krimenengatik eta gizadiaren kontrako krimenengatik.

2007an sortu zuten Guatemalako Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordea (CICIG) Nazio Batuek eta Guatemalako Gobernuak. Haren egitekoa da legez kanpoko taldeek eta talde klandestinoek egindako krimenak ikertzea. Erakunde hori sortzeak beste bultzada bat eman zion prozesuari. Berez egungo krimenak, eta ez iraganekoak, ikertzeko mandatua zuen arren, orduko zuzendariak kanpaina bat abiarazi zuen gatazka-urteetan egindako gizadiaren kontrako krimenak epaituak izan zitezen eta zigorgabetasuna amai zedin, horretarako Ministerio Publikoari fiskal eskudun eta independenteak izendatzeko eskatuz. Hala, Amílcar Velázquez Zarate, Claudia Paz y Paz eta tankerako fiskal nagusien lanari esker, lehentasuna eman zitzaion giza eskubideen urraketa historikoen kasuei legez jazartzeari.

2013ko martxoaren 19an, epaiketa hasi zen Efraín Ríos Montt jeneralaren eta *de factoko* presidente ohiaren kontra eta haren agintaldiko inteligentzia militarreko buru José Mauricio Rodríguez Sánchezen kontra. Maiatzaren 10ean, erabaki historiko batean, Guatemalako Arrisku Handieneko kasuetarako Auzitegiak jeneral eta diktadore ohiari 80 urteko zigorraldia ezarri zion genozidio-krimenengatik eta gizadiaren aurkako krimenengatik. José Mauricio Rodríguez Sánchez jenerala absolbitu egin zuten.

Epaiketaren 27 saioetan, lekukoek eta adituek testigantza eman zuten eta dokumentu militarrik eta bestelako frogak aurkeztu zituzten. Ehun frogak eta lekukotza baino gehiago batu zituzten eta horietan oinarritzen da sententzia. Biolentziatik bizirik irten ziren edo biktimei senide ziren 90 txiki bako bako baino gehiagok eman zuten testigantza epaitegiaren aurrean.

Epaia krimenak gertatu eta 30 urte geroago etorri zen, eta Ministerio Publikoaren aurrean salaketa jarri eta 13 urte geroago. Hala eta guztiz ere, maiatzaren 20an Konstituzio Epaitegiak, akusatuen defentsak jarritako helegite bati erantzunez, epaiketaren zati bat errepikatzeko agindu zuen, sententzia oinarri juridikorik gabe utziz. Erabaki hori gogor kritikatu dute juristek eta akademikoek, nazioarteak eta gizarte zibilak, eta agerian utzi ditu justizia sistemaren ahuldadeak eta haren independentzia eta inpartzialtasunarekiko zalantzak zabaldu dira. Kasua geldituta dago orain, eta horrek eragin larriak dakartzkie biktimei, haien egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak ez baitira errespetatzen eta Zuzenbide Estatua ahultzen baita.

---

<sup>5</sup> 1966ko Nazioarteko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna, Guatemalako 1992an berretsia; 1969ko Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena (San José-ko Itun izenarekin ezaguna), 1978an berretsia; Emakumearen kontrako Diskriminazio mota oro Deuseztatzeko Hitzarmena eta horren Protokolo fakultatiboa, 1982an eta 2002an berretsiak, hurrenez hurren; eta 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ituna, 1988an berretsia.

Oztopo horiek gorabehera, bizirik atera zirenentzat, epaiketa eta epaiarekin lortu da estrategia militarrek eragindako genozidio hura osatzen duten gertakariak ezagutaraztea eta ikertzea. Gutxika-gutxika, komunitateek aurrera egiten dute zigorgabetasunaren aurkako borrokan, ez egia ezagutzeko bakarrik, baita justizia eta berriz ez gertatzeko bermeak lortzeko ere. Bizirik atera zirenek haien isilaldia eta beldurra gainditu dituzte mehatxuak jaso arren, justiziak ezezkoa eman arren eta haiek bizitakoaren aurrean gizarteak erakusten duen axolagabetasuna gorabehera.

### **Gaur egungo egoera**

2012ko urtarrilean, Guatemalako Presidente kargua hartu zuen Otto Pérez Molina militar ohiak<sup>6</sup>. Bere gobernuan hiru gai estrategikotan oinarritutako erreforma-programa bat aurkeztu zuen: gosearen aurka borrokatzea eta guatemalarren bizitza eta ondasunak babestea; enplegua sortzea eta finantza publikoak indartzea. Hiru gai horien 2012-2016 aldirako Gobernuaren Plana osatzen duten hiru Itunetan zehaztu dira: Segurtasunaren, Justiziaren eta Bakearen aldeko Ituna; Garapen Ekonomikoaren eta Ordenamendu Fiskalaren Aldeko Ituna; eta Zero Gosea Ituna. Itunok gobernuaren estrategia gidatuko dute eta "Aldaketaren Agenda" izenekoak garatzen lagunduko dute. Azken hori bost ardatzen inguruan antolatua dago: Segurtasun demokratikoa eta Justizia, Garapen ekonomiko lehiakorra, azpiegitura produktiboa eta soziala, garapen soziala eta landa-inguruko garapen iraunkorra.

2015eko urtarrilera arte, hiru itunek maila desberdinetan egin dute aurrera eta herritarren parte hartzea oso txikia izan da edo ez da apenas existitu, eta emaitzak uste baino txikiagoak izan dira.

### **Indarkeria orokorra**

Guatemalan biolentzia-maila oso larria da. Homizidio-tasa munduko altuenen artean dago. Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalaren (INACIF) arabera, 2013an 6.072 homizidio izan ziren. Kriminalitatea prozesu luze baten ondorio da: instituzioak ahuldu dira eta gizarte bazterketa eta desberdintasuna hedatu. Gatazka ondoren estatuaren egiturak desegin ziren eta horrek hutsune bat eragin zuen, botere-talde paraleloen eta kriminal-taldeek bete dutena. Horiek egitura publikoetan sartu dira. Segurtasun-arazoak oso zabalak dira: antolatutako krimena, droga-trafikoak, legez kanpoko adopzioak, kaleko taldeak (marak), emakumeen hilketak, bahiketak eta familia edo enpresa txikiei egindako estortsioak gainbehera etorritako hiri-inguruetan<sup>7</sup>.

Egiturazko biolentzia eta zigorgabetasunak gizartean errotu dira, eta segurtasun falta oso sentimendu orokorra da.

### **Feminizidioa eta emakumeen aurkako indarkeria.**

Mundu mailan, hirugarren postuan dago Guatemala emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, beldurtzeko moduko zifrekin. INACFen arabera, 2013an 759 emakume hil zituzten era biolentean, 2012an baino 50 gehiago. Egunean batez beste bi hilketa gertatu ziren. EHori gertatu da 2008an *Feminizidioaren eta Emakumeen kontrako beste Biolentzia Moten aurkako Legea* onartu zuten arren. Lege horrek feminizidioa delitu bezala tipifikatu zuen eta horri esker

---

<sup>6</sup> Otto Pérez Molina "kaibile" izeneko taldeko kide izan zen. Guatemalako Armadako eliteko talde hori gatazka urteetan izandako 600 hilketarekin baino gehiagorekin lotuta dago.

<sup>7</sup> Horiek eta herritarren segurtasunaren inguruko beste datu esanguratsu batzuk kontsultatzeko, ikus Giza Garapenaren Eskualdeko Txostena (IDH) 2013-2014: *"Seguridad Ciudadana con rostro humano: diagnóstico y propuestas para América Latina"*. Honen eta gaiaren inguruko bestelako lan batzuen (esate baterako, *"Estrategia de Seguridad de Centroamérica (ASCA)"*, 2011ko apirilaren 8an onartua, edo *"Declaración de Ginebra sobre Violencia Armada y Desarrollo"*, zeinak 2014ko apirilean Berrikuspenerako Eskualdeko Batzarra Guatemalan ospatu baitzuen) analisi, proposamen eta eronkek eskualdean UNDAF indarrean dagoen bitartean lortu nahi diren helburu batzuk ezartzen dituzte.

salaketa penalen kopurua 2008ko 849 kasuetatik 2011ko 4.678ra igaro da. Emandako epaiak 1etik (2008an) 763ra ugartu dira (2011n).

### LGTTBI lesbianen, gayen, transexualen, transgeneroen, bisexualen eta intersexualen kolektiboaren egoera

Guatemalako gizartean errotuta daude LGTTBI kolektiboaren kontrako jarrerak. Arbuio horrek delitu larriak eragiten ditu, hala nola, desagerpenak, bahiketak, atentatuak eta hilketak. Salaketa falta dela eta kopuru zehatzak ezagunak izan ez arren, oraindik ere hilketak gertatzen dira. 1996 eta 2006 urteen artean, gutxienez 35 lagun hil zituzten. Emakume transexualak, trabestiak eta transgeneroak daude egoerarik larrienean. Normalean haien gorpuak 'xx' edo ezegun bezala sailkatzen dituzte eta identifikatu gabe geratzen dira.

LGTTBI herritarrek diskriminazio latza, estigmatizazioa eta gizarte-bazterketa bizi dituzte – hezkuntza eta osasun-zerbitzuak lortzeko garaian batik bat– bai alor publikoan, bai pribatuan. Egoera are larriago bihurtzen da beste diskriminazio mota batzuekin batera gertatzen denean, hala nola, arrazagatiko edo klase sozialagatiko diskriminazioak.

Politika publiko ezagatik, Estatuaren ahultasunagatik eta borondate politiko faltagatik, LGTTBI herritarren kontrako delituei ez zaie behar bezala aurre egiten. Ez dira ez era egokian prebenitzen, ez ikertzen, ez eta epaitzen ere.

Sexu-aniztasunaren alorrean giza eskubideak defendatzen dituztenek mehatxuak, jazarpena, abusuak eta, muturreko kasuetan, biolentzia fisikoa sufritzen dituzte indar publikoen eta norbanakoen eskutik. Erasoak eta medioetan emandako estigmatizazio-kanpainak salatu ditu Guatemalako NBGEGKek 2014an argitaratutako txostenean, bai eta Gobernuaren funtzionario batzuek egindako seinalatze publikoak ere, jendaurrean haien lana eta nazioarteko giza-eskubideen elkarrekin duten harremana zalantzan jarriz.

### Garapeneko megaproiektuen eragina

Guatemalako bere kokalekua dela eta, garrantzi geopolitikoa hartu du nekazaritza-arloko megaproiektuak eta negozioak martxan jartzeko orduan. Zentral hidroelektrikoak eraiki dituzte edo petrolio eta meatzeak ustiatzeko proiektuak esleitu dituzte herri indigenak informatu edo kontsultatu gabe, nahiz eta hori Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169 hitzarmenean<sup>8</sup> jasotako betebeharren kontrakoa edo Nazio Batuen 2007ko Herri Indigenen Eskubideen Adierazpenaren kontrakoa izan. Horrek eragin larriak izan ditu gehienbat landa-eremuak diren herrietan (nekazariak eta indigenak) eta ingurumenen: mehatxuak, bortxazko lekualdatzeak eta ingurumenaren kutsadura. Horrek guztiak gatazka sozialak eragin ditu.

### Herri indigenak

2002ko zentsuak eta 2011n Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egindako proiektzioek diote Guatemalako biztanleen % 40 indigenak direla. Indigenen erakundeek, ordea, portzentaje hori ofizialki emandakoa baino altuagoa dela diote.

Herri indigenek bazterketa eta diskriminazio historikoa bizi dute, egiturazkoa eta arrazarekin lotua, osasuna, hezkuntza eta oinarrizko zerbitzuak baliatzeko garaian Bazterkeria hori are handiagoa da emakumeen kasuan.


---

<sup>8</sup> LANEren 169 Hitzarmenaren 7. artikulua: "Eraginpeko herriek eskubidea izango dute beraien lehentasunak ezartzeko garapen-prozesuari dagokionez, horrek beraien bizitzan, sinesmenetan, instituzioetan, ongizate espiritualean eta nolabait okupatu edo erabiltzen dituzten lurretan eragina duen heinean; eta baita beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala kontrolatzeko, posible den neurrian. Gainera, herriok zuzenean eragin diezaieketen eskualdeko garapen-planen eta plan nazionalen prestakuntza, aplikazio eta ebaluaketan parte hartu behar izango dute."

Nazio Batuen Indigenen Aferentzako Foro Iraunkorraren Nazio Batuen Guatemalako Herri Indigenen Eskubideen Adierazpenari buruzko Ebaluaketa Txostenean esaten denez, ez dira betetzen Herri Indigenen Identitate eta Eskubideen Akordioa<sup>9</sup>, LANEren 169. Hitzarmena eta Nazio Batuen Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena. Hainbat arrazoi daude horretarako: protesta-eskubidearen aurrean lurraldeek bizi izan duten militarizazioa eta gobernagarritasun-falta; kriminalizazioa, lider indigenen kontrako jazarpen politiko, polizial eta militarra; eta "aurretiko kontsulta aske eta informaturako" herriek duten eskubidea bete gabe emandako lizentziak petrolio, meatzeak eta baliabide hidroelektrikoak ustiatzeko.

### Giza eskubideen defendatzaileen egoera

Testuinguru honetan, giza eskubideen defendatzaileen kontrako erasoak era kezagarrian ugaritu dira, batik bat lurra eta ingurumena defendatzen dituztenen kontra eta landa-inguruko biztanleen kontra. Indigenak dira oro har. Eraso mota ohikoenak dira jabetzaren kontrako kalte materialak, legez kanpoko atxiloketak, gutxiespenak, kriminalizazioa eta mehatxuak. Horren guztiaren kausa nagusia hainbat komunitatek pairatu behar izan dituzten kaleratze biolentoak izan dira.



Iturria: "Defendatzailea naiz. Giza Eskubideak sustatzen ditut". Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko Txostena. 2014ko urtariletik abendura. UDEFEGUA.

NBEren errelatore bereziak honakoa zioen giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz 2013ko txosten batean: "Garapen proiektuen alorrean lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak oso arrisku handian daude. Askotan jasotzen dituzte mehatxuak, zenbaitetan heriotza-mehatxuak ere, eta gero atentatuak sufritzen dituzte. (...) atxilotu egiten dituzte, eta haien jarduerak delitu bezala tipifikatzen dituzte, baita oinarrizko eskubideak gauzatzen ari badira ere, batik bat era baketsuan biltzeko

eskubidea eta adierazpen-askatasunari eraginez".

Guatemalako Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko unitateak (UDEFEGUA) 4.536 eraso baieztatu ditu azken 15 urteotan (% 56,23 gizonen kontra, % 30,90 emakumeen kontra eta % 12,86 erakundeen edo instituzioen kontra). Unitateak arrazoi politikoengatik eginda izan direlako zantzuak aurkitu ditu 174 hilketatan.

**2014 izan da biolentzia gehien izan den urtea, 813 erasorekin** (2013an baino % 23,75 gehiago). Horietatik, 7 hilketak izan ziren (6 gizon eta 1 emakume). Emakumeen kontrako erasoek gora egin dute nabarmen (% 51,84) eta eraso gehien jaso dituzte beren komunitatean ustiapen-proiektuak gelditzeko antolatu dituztenak. Mehatxuak, larderia eta jazarpen psikologikoa, abisuak, indarraren gehiegizko erabilera, kriminalizazioa eta judizializazioa dira jasan dituzten eraso nagusiak.


<sup>9</sup> Herri Indigenen Identitate eta Eskubideen Akordioa sinaturiko hamabi Bake Akordioetariko bosgarrena izan zen eta Guatemalako Gobernuak eta Guatemalako Unitate Iraultzaile Nazionalak (URNG) sinatu zuten. 1995ko martxoaren 31n sinatu zuten Mexiko Hirian.

Biolentziak gora egin du 2013an Efraín Ríos Montten genozidio-epaiketaren kontrako aliantza sortu zenetik. Itun horrek zigorgabetasun-paktuak sustatu ditu, kriminalizazioa handitu du eta adierazpen-askatasuna mugatzeko estrategia ekarri du.

Maiatzean erregistratu ziren eraso gehien, La Puyako Erresistentzia Baketsuko Komunitatearen kontrako kanporaketa biolentoengatik. Euskal ordezkariak komunitate horretan izan zen eta horri buruz jardungo dugu aurrerago.


Azken 15 urteetako joerari eutsiz, 2014an lurraren eta ingurumenaren defendatzaileek jaso dituzte eraso gehienak, 510 (% 62,65).

**Tipo de Defensoras/es agredidos 2000-2014. Guatemala**



Iturria: "Defendatzaila naiz. Giza Eskubideak sustatzen ditut". Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko Txostena. 2014ko urtariletik abendura. UDEFEGUA.

**Tipo de delitos cometidos contra defensoras, 2014. Guatemala**



Iturria: "Defendatzaila naiz. Giza Eskubideak sustatzen ditut". Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko Txostena. 2014ko urtariletik abendura. UDEFEGUA.



## ANALISI-ELEMENTUAK

### 1.- GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK

### 2.- SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA

### 3.-EGIA, JUSTIZIA, ADISKIDETZEA ETA BERRIZ EZ GERTATZEKO BERMEAK

#### GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK

##### *Giza eskubideen aldeko erakundeek kontatzen digutena*



*Euskal ordezkariak euskal lankidetzarekin lan egiten duten erakunde sozialekin eta giza eskubideen elkarteekin bilduta (Guatemala Hiria)*

Erakundeek adierazi digute kezkatuta daudela beren egoera dela-eta. Esaten digutenez, 2014a urte gogorrenetarikoa izan da, Bake Akordioak sinatu zirenetik. Beti gertatu izan dira erasoak, neurri batean ala bestean, egia eta justizia eskatzen zituztenen kontra (abokatuak, sindikatuak), baina 2000tik aurrera orokortu egin dira nekazarien, emakumeen elkarteetan, umeen aldeko elkarteetan, eta abarren kontra. Erasoen kronologia bat ikusten dute, eta horren formak eta helburuak aldatuz joan dira momentuko egoeraren eta defendatzen ari ziren eskubideen arabera: 2006an AEBekin sinatutako Merkataritza Askeko Tratatuarekin (TLC) igoera nabarmena izan zuten nekazarien elkarteetan aurkako

borrokaren eta 2008ko *Feminizidioaren eta Emakumeen kontrako bestelako Indarkerien kontrako Legearen* promulgazioaren ondorioz emakume defendatzaileen aurkako erasoek gora egiten dute, gaur arte mantendu den joera; 2011n, bestalde, sindikatuen kontrako erasoak egon ziren, barneko ustelkeriaren aurkako borrokarengatik, batik bat osasunaren sindikatuan.

2013an erasoen gorakada gertatu zen eta gaur egunera arte iraun duen joera hasi zen: **kriminalizazioa**. Gezurrak, gutxiespen publikoa eta judizializazioak (ikerketak eta salaketak ustez hainbat delitu larri egiteagatik) ugaritu egiten dira, defendatzaileak esfera publikotik erretiratzeko. Horrek guztiak zama fisiko eta psikologiko astuna ekarri die berez babestuta egon beharko luketen pertsona batzuei<sup>10</sup>. Atxiloketa bidegabeak, prozesu judizial amaiezinak, atxilotze aginduak edo informatzeko aukera ukatzea behin eta berriz errepikatzen dira, eta irregulartasun horiek epaiketa justu baterako gutxieneko bermeak bete gabe gertatzen ari dira. Liderren kontrako judizializazio azkarrek haien kontrako erasoetan epaiketen moteltasunarekin kontrajartzen dituzte.

Justizia-sistemari dagokionez, Konstituzio Gorteak Claudia Paz y Paz fiskal nagusia inolako arrazoirik gabe bere postutik behar baino lehenago kentzeko erabakia salatzen dute. Fiskal horri esker aurrerapauso nabarmenak eman ziren Guatemalako zigorgabetasunaren aurka, eta horrek gatazka piztu zuen boterea duten taldeekin. Gogor kritikatu zuten erabaki hori giza eskubideen elkarteek, nazioarteko organismoek eta nazioarteak, Zuzenbide Estatuaren

<sup>10</sup> "Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarriko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena" onartu zuen Nazio Batuen Asanblada Orokorrak 53/144 Ebazpenean.

aurkako mehatxutzat hartu baitzuten. Izan ere, erabakiak Fiskaltzaren independentzia gutxiesten zuen eta zigor inplizituztat har liteke, egindako lanarengatik.

Militar ohiz osatutako Terrorismoaren aurkako Fundazioa seinalatzen dute egiaren eta justiziaren alde lanean ari direnen kontrako talde nagusi bezala.

Uste dute gobernuak ez duela giza eskubideen defendatzaileen rola ulertzen. Ez dute herrialde justu bat eraikitzeko egiten duten lana baloratzen eta kezkatuta agertu dira COPREDEHK modu unilateralean kendu dituelako Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CoIDH) ezarritako babes-neurriak, zenbaitetan arrisku larrian dauden defendatzaileei eraginez. Uste dute, halaber, elkarrizketari balioa kentzen ari zaizkiola, mahaiak gatazkak konpontzeko ez eta liderrak identifikatzeko erabiltzen ari baitira. Azkenik, esaten digute gobernuak etsaitzat duela nazioartea eta arrazismo instituzionalarengatik uste dutela nazioarteko erakundeek gidatzen dituztela Guatemalako prozesuak, tokiko erakundeen lidergoa gutxietsiz.

- **LURRALDEAREN DEFENTSA**

**Emakumeak** eta **lurraldearen defentsan** ari direnek jaso dituzte eraso gehien. Lurraldeak militarizatzen ari dira (kapitalaren interesen mesedetan) eta protesta sozialak daudenean kaleratze biolentoak dira erantzuna. Erasotzaileen artean, estatuz kanpoko aktoreak (enpresak) aipatzen dituzte, militar ohiek lagunduta. Uste dute haien helburua komunitateek era biolentoan erantzutera eramatea dela, horrela estatuaren errepresioa justifikatu ahal izateko.

Egoera honen aurrean, PBIk (Bakearen Nazioarteko Brigadak) adierazi digu alerta iraunkor bat duela Giza Eskubideen aldeko espazioak ixten dituztenerako.

**Bisita: La Puya (Erresistentzia Baketsuko Komunitatea)**

La Puyako Erresistentzia Baketsuko Komunitatea ura eta lurraldeko bizimodua defendatzeko prozesu bat da, "El Tamnor, Progreso VII Derivada" izeneko urre-ustiapen proiektuak ingurumenean eta giza eskubideetan izango dituen ondorio negatiboen aurkako. Proiektu hori Kappes, Cassidy & Associates (KCA) enpresa estatubatuarrena eta bere filial Exploraciones Mineras de Guatemala SA (EXMINGUA) eta Servicios Mineros del Centro América S.A.arena da. Prozesua San José del Golfo eta San Pedro Ayampuc udalerrietako komunitateek zuzentzen dute, hiriburutik 40 km-ra, eta inguruko komunitateetako biztanleak batzen ditu, meatzaritzak eragin negatiboa izan bailezake haiengan (Aipatutako proiektuaz gain, badira beste 15 meatzaritza-proiektu ditu inguruan).



*Euskal Ordezkaritza eta La Puyako Erresistentzia Baketsuko kideak*

Mugimendua 2010ean sortu zen, inguru horretako biztanleek komunikabideen bidez jakin zutenean meatze bat zabaldu nahi zutela beraien etxeen ondoan, 446.000 tona urre lortzeko asmoarekin. 2012ko martxoaren 2an kanpamentu bat sortu zen meatzearen sarreran eta erresistentzia baketsuko txandak antolatu ziren, bizilagun batek kamioi bati bidea eragotzi eta gero jendea bertaratzen hasi zenean. Ordutik, bizilagunek presentzia iraunkorra izan dute La Puyan, 24 orduko txandekin. Erakundeek eta enpresak gerra psikologikoa hasi zuten komunitatearen kontra, hainbat estrategiarekin: kooptazioa, komunitateak zatitzea, errepresio

biolentoa, kriminalizazioa, mehatxuak eta gutxiespen soziala, azken hori komunikabideen laguntzarekin.

Borroka hori Guatemalako **meatzaritzaren kontrako erresistentzia baketsuaren ikur** bihurtu da oso denbora gutxian.

2012ko maiatzaren 8an, enpresa makineria eramaten saiatu zen inguru hartara, 400 polizia-autok, Polizia Nazional Zibilaren 400 agentek eta istiluen aurkako 2 kamioik lagunduta. Biztanleek erresistitu dute eta ez ziren agenteen probokazioetan erori.

Komunitateak Euskal Ordezkaritzari azaldu zizkion **Indar Publikoen errepresio biolentoaren** inguruan zituzten kezkak, baita haien kontra izandako **mehatxuak eta erasoak** ere (Yolanda Oqueli hiltzen saiatu izana tartean, 2012ko ekainean), baita meatzaritzaren aurrean lurrerako eta baliabideen erabilerarako eskubidea defendatzen duten liderren **judizializazioak** eta komunitateko hainbat emakumek Indar Publikoen eskutik sufritzen duten **sexu-jazarpena** ere. Erakundeetan salaketak jarri arren, gertakari hauetako bakar bat ere ez dute argitu.

Era berean, proiektuak **ingurumenean izan dezakeen eraginak** sortzen dizkien kezkaren berri ere eman digute: uraren kalitatea eta lortzeko erraztasuna (ura egunean ordubetez erabil dezakete bakarrik; leku batzuetan, astean bi orduz baino ez), elikagai subiranotasuna ("*nondik lortuko dugu janaria lurra eta ibaiak kutsatuta badaude*") eta bakean eta inguru sano batean bizitzeko eskubidea ("*proiektu hauek hasi zirenetik, bukatu zaigu bakea (...) guretzat garapena ondo bizitzea da, bakean bizitzea*").

#### Kanporatze biolentoak

2014ko maiatzaren 23an kanpamendua indarrez hustu zuten Indar Publikoek. Kanporatzea baino hiru egun lehenago goi-mailako bilera bat izan zen komunitateko biztanleen eta erakunde publikoen artean. Biler hori, ordea, bertan behera geratu zen, komunitatearen arabera, Estatuak ez baitzuen bete erakunde bati ikuskatzaile gisa parte hartzen uzteko hartua zuen konpromisoa.

Maiatzaren 23ko goizaldean meatzaritzaren enpresaren makineria iritsi zen kanpamendu-ingurura, 35 polizia-auto eta bestelako ibilgailu eta Polizia Nazional Zibilaren 500 agenteko laguntzarekin, gutxi gorabehera. Eguerdian, agenteak jendea kaleratzen hasi ziren.

PBI bezalako giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek indarraren gehiegizko erabilera salatu zuten: gas negar-eragilea, makilak eta harrikadak era baketsuan erresistentzia egiten ari ziren gizon-emakumeen kontra. UDEFEGUaren arabera, erresistenteetako 23 lagun zauritu zituzten, bat larri. Bertan zeuden Giza Eskubideen Prokuradoretzako (PDH) langile batzuek ere Poliziaren jarduna "gaitzesgarria" izan zela esan zuten. Gobernuaren iturriek Polizia Nazional Zibilaren (PNC) agente batzuk ere zauritu zituztela adierazi zuten.

Ordutik, tentsio handiko giroa bizi da komunitateetan. Hainbat alditan sartu da makineria meatzeari. Polizia Nazional Zibila eta istiluen kontrako taldea kanpamentuaren sarreran daude oraindik ere. Komunitateak poliziaren presentzia zalantzan jartzen du. Izan ere, haien egitekoa herritarrak babestea da, eta ez enpresa multinazional baten interes pribatuen aurrean makurtzea.

#### Judizializazioak

Zortzi lider epaitu dituzte, enpresaren inguruko aktoreek jarritako salaketengatik: derrigortzeagatik, legearen aurkako atxiloketarengatik eta mehatxuengatik. 2014ko apirilean haietako hiruri bederatzi urteko espetxealdia ezarri zieten nahiz eta, komunitatearen esanetan, Ministerio Publikoak delituak frogatzerik ez zuten izan.

Giza Eskubideen Defendatzaileak babesteko Behatokiak prozesuaren berme juridikoen eta independentzia judizialaren printzipioaren falta aipatu ditu. Beste bost pertsonaren epaiketaren lehen saioa 2014ko maiatzaren 27an izan zen. Yolanda Oquelíren kontrako salaketa bakarrik artxibatu zuten (Ikus PDH koadroa 26. or.).

Kontrako epaiketak oso azkar egiten diren arren, komunitateak enpresaren kontra hasitako ekintza judizialek ez dute aurrera egiten edo ez dute Ministerio Publikoaren erantzunik jasotzen.

#### Komunitatearen eskaerak

- Urrea ustiatzeko proiektuan informazioa, parte-hartzea eta estatuak bere betebeharrak beteko dituela bermatzea.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketa berrikustea. Izan ere, nazioarteko adituek analizatu zuten eta gabezia garrantzitsuak aurkitu zituzten. Adituek egindako bi ingurumen-inpaktuaren azterketa dauzkate. Horietako bat Rob Robison aditu estatubatuarra egin du eta bertan diote proiektua ez dela bideragarria.
- Ustiapen-proiektuen lurraldean duten eraginagatik sor daitezkeen hondamendi naturalak prebenitzeko politikak martxan jartzea.
- Nazioarteak laguntzea, esleipen-proiektua legez kanpokoa delako.

#### • **GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITUZTEN EMAKUMEAK**

Komunitateetako feministek, lur-eskubideak defendatzen dituzten emakume indigenek, bi egiturazko kausa historiko aipatzen dituzte giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen egoera azaltzeko: patriarkatua eta insurgentziaren kontrako gerraren ondorioak.

Biolentzien jarraipen historiko bat ageri da:

- Etxeko rola: horrexegatik hartu dute emakumeek luraren defentsarako borrokaren lidergoa. Haiek sufritu dituzte aurrena enpresa transnasionalek indigenen lurraldeetan eragindakoak. Hidroelektrikoaren kasuan, ibaietako ur-eskasia nabaritu dute eta proiektu hauen kontrako oposizioa eta erresistentzia zuzendu dituzte. Ondasun naturalen defentsak espazio publikoa okupatzera eraman ditu (martxen aurreko aldean egon, instituzioekin hitz egin...) eta horrek beste borroka-fronte batzuk zabaldu ditu: matxismoarekin haustea eta rol aldaketak eragindako estigmatizazio komunitarioarekin amaitzea (lider bihurtzea emakumea, indigena eta landa-eremukoa izanik).
- Sexu-indarkeria. Gorputza lurralde bezala errebindikatzearen aldekoak dira. Lurra lurralde bezala defendatzea alferrikakoa da, barnean biolentzia sexuala, misoginia eta abar sufritzen baldin badira. "*Lur-Lurraldea defendatzen dugun bezala defendatzen dugu gorputz-lurraldea. Gorputzen espazio duina behar dute bizi ahal izateko*". Borrokaren lehen lerroan dauden emakumeen gorputzetan eragina duen testuinguru militarizatu batean bizi dira (sexu-jazarpena, sexu-indarkeria, nahi gabeko haurdunaldiak...). Biolentziaren sexualizazioak ikara eragiten du defendatzaileen artean. Emakumeen gorputza objektu bihurtzen da eta emakumeen giza eskubideen eta lurraldearen defentsa-lana geldiarazteko arma bilakatzen da.



*Maribel Vaquero andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea, Yolanda Oquelí eta Lolita Chávez andreei (La Puyako Erresistentzia Baketsuko Komunitatearen ordezkariak) Nestor Basterretxearen Izaro eskultura ematen, Eusko Legebiltzarren ikurra- .*

- **HERRI INDIGENAK**

LANEren 169. Hitzarmena, herri indigenek beren lurraldeari buruzko aurretiko kontsulta aske eta informatutako duten eskubidea ezartzen duena, ez dela betetzen diote, hain zuzen ere. Haien ustean, Gobernuak ustiapen-ekonomien alde egiten jarraitzen du, nazioarteko kapitala eta gutxiengo oligarka baten interesak defendatuz, indigenen eta nekazarien giza eskubideen errespetuaren alde egin beharrean. Ustiapen-proiektuek eta proiektu hidroelektrikoek sortzen dute gatazka eta tentsiorik handiena, eta lurra eta lurraldeetako bizimodua defendatzen dutenei garapenaren eta gobernuaren kontra egotea leporatzen diote. Barne-etsaiaren estrategiak bake-garaian ere jarraitzen du. Elkarriketarako eta gatazkak konpontzeko mekanismo eraginkorrak erabili beharrean, salbuespen- edo setio-egoera ezarri da herrialdearen zonalde batzuetan. 2008 eta 2014 artean 14 aldiz ezarri da salbuespen-egoera, eta horietariko bitan baino ez (2011ko Alta Verapaz eta Petén-go sitio-egoeretan) zegoen antolatutako krimena egoeraren larritasunaren atzean<sup>11</sup>.

- **HAUTESKUNDE URTEA**

Kezkatuta agertu dira halaber 2015ean hauteskundeak egingo direlako, eta zigorgabetasun itunak gertatuko ote diren beldur dira: uste dute gizadiaren kontrako krimenezako, torturarentzako eta genozidioarentzako amnistia-lege bat onartzen saiatuko direla eta San Joséko Ituna<sup>12</sup> uzten saiatuko direla, Giza Eskubideen Batzorde eta Gorte Interamerikarraren menpe egon ez eta heriotza-zigorra ezartzeko eta, testuinguru horretan, giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa areagotzeko.



Iturria: Kriminalizazioaren aurkako Ituna

- **ESKAERAK**

Erakunde sozialen eta giza eskubideen aldeko elkarleen eskariak eskubide horiek defendatzeko eskubidearen ingurukoak dira, betiere defentsa hori baketsua, askea eta indarreko legediaren araberrakoa dela ulertuz. Horretarako, Guatemalako zein nazioarteko instituzioen laguntza eskatzen dute.

Alor horretan, Guatemalako Estatuari eskatzen diote:

- Guatemalak sinatu duen LANEren 169. Hitzarmena onartzen duten herri indigenen aurretiko kontsulta aske eta informatutako eskubidea betetzea.
- Justizia-aparatua independentea izatea, hau da, esku-hartze politikoetatik kanpo egotea, batik bat giza eskubideen defendatzaileak kriminalizatzen ari diren honetan.
- Salbuespen- eta sitio-egoerak eta lurraldearen militarizazioa era jarraituan erabiltzeari uztea.
- Giza Eskubideen Prokuradoretzeren irismena handitzea.
- Giza Eskubideen defendatzaileek jarritako salaketen eragiten dituzten ikerketak eta prozesu judizialak azkartzea. Prozesu horiek motel egiten direla diote eta haien kontra egiten direnak, ordea, bizkor.
- Segurtasun juridikoa bermatzea.

<sup>11</sup> PDH/DIDH. 2014ko urrira arteko salbuespen-egoeren erregistroa.

<sup>12</sup> 1969ko Giza Eskubideen Amerikako Bilkura, San Joséko Itun bezala ere ezaguna.



- Gatazkak era baketsuan konpontzeko mekanismoak, adibidez elkarrizketa, sustatzea. Prozesu horiek nazioarteko laguntzarekin finantzatzen dira askotan.

Eta nazioarteari:

- Europar Batasuneko Filtro Taldearen lanak jarraipena izatea<sup>13</sup>, defendatzaileekin bilduz, batik bat eskualdeetan (2014ean 4 bilera egin dira, 2015ean kopuru horri eustea) eta talde horrek aurkeztutako kasuen jarraipena egitea.
- Enbaxadek eta kidego diplomatikoek egindako giza eskubideen urraketen kasuak hobeto ulertzea:
  - Eskubide kolektiboak defendatzen dituzten pertsonak badaudela ikusaraztea.
  - Hauteskundeen aurrean defendatzaileek paira ditzaketen arriskuei aurre egitea.
  - Emakume defendatzaileen inguruko ekintza espezifikoak egitea. Horretarako proposatzen dute emakumeen aurkako biolentzia amaitzeko EBren zuzentarauak erabiltzea, oinarri gisa.
- Giza eskubideen defendatzaileen talde juridikoak diruz laguntzea.
- Bai Guatemalan, bai nazioartean, giza eskubideen eta horiek defendatzen dituzten pertsonen egoera ikusaraztea.
- Guatemalako Gobernuari eskatzea giza eskubideen defendatzaileekin komunikatzeko elkarrizketa-bideak irekitzeko.
- Atzerriko multinazionalak lurraldeetan duten jarrera zaintzeko kontrol mekanismoak sustatzea.
- Nazioartearen eta erakunde sozialen eta giza eskubideen erakundeen arteko komunikazio-esparruak indartzea.

### ***Nazioarteko organismoek eta misio diplomatikoek kontaktzen digutena***

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa (NBGEGKB) bat dator giza eskubideen aldeko elkarteek eta mugimendu sozialek emandako ikuspuntuarekin. Kezkatuta daude **hauteskundeak** daudelako 2015ean. Izan ere, uste dute defendatzaileen aurkako **errepresioak gora egingo duela** eta haien aurkako **kriminalizazio estrategiak** jarraituko duela. Kriminalizazio hori areagotu egin da azkeneko urtean eta bere eraso-formak dibertsifikatu egin dira. Ados daude ere eraso gehienak **ustiapen-proiektuen** (meatzeak, petrolioak) edo beren lurraldeak zentral **hidroelektrikoak** jartzearen kontra azaltzen diren pertsonen aurkakoak direla diotenekin. Bertan, askotan, estatua ez da existitzen eta enpresek botere handia dute afektatutako komunitateekin zuzenean hitz egiteko.

Era berean, **estigmatizazio-kanpaina** bat ikusi dute, instituzioetatik abiatuta giza eskubideen defendatzaileen kontra, baita enbaxaden eta Nazio Batuen nazioarteko kooperazio-proiektuen kontra ere.

Nazioarteko ikuskatzaileak direnez geroztik, bilerak izaten dituzte aldi-aldi defendatzaileekin eta laguntzen dieten erakundeekin (UDEFEQUA, PBI, ACOGUATE<sup>14</sup>, Zigorgabetasunaren aurkako Nazioarteko Plataforma), salaketak jasotzen dituzte, landa-laneko misioak egiten dituzte, epaiketa garrantzitsuetara joaten dira, kartzelan dauden

<sup>13</sup> Europar Batasuneko Filtro taldeak enbaxadetako bigarren postuan dauden pertsonak biltzen ditu. Giza eskubideekin lotutako auzien jarraipena egiten dute.

<sup>14</sup> Guatemalari Laguntzeko Nazioarteko Koordinadorak (ACOGUATE) Europa eta Ipar Amerikako 10 herrialdetako 11 batzorde autonomok osatzen dute.

defendatzaileak bisitatzeko dituzte, Nazio Batuen babes-mekanismoak ezartzeko Estatuarekin hitz egiten dute eta herrialdean gertatzen ari denari buruzko informazioa zabaltzen dute politika publikoetan eragiten saiatuz.

*Espainiako Enbaxadak* herrialdearen arazo nagusien berri ematen digu: pobrezia (gutxieneko soldata ez da oinarritzeko beharrak asetzeko nahikoa), desberdintasuna, haurren desnutrizio kronikoa, aberastasunaren pilaketa, feminizazioak eta egiturazko biolentzia, zeina "izurri" bezala definitzen baituen. Bi Guatemala daude: hiriburua eta landa-eremua.

Enbaxadaren eta AECIDen lanak hiru ildo ditu: desnutrizio kronikoa; segurtasuna eta justizia, emakumeentzat batik bat; eta ura eta saneamendua.

Onartzen dute **landa-eremuan gatazka larriak** daudela. Bertan, komunitateak erresistentzian daude meatze-konpainien eta hidroelektrikoen aurrean. Era berean, Espainiako inbertsioa herrialdeko hirugarrena dela diote eta 110 enpresa espainiar daudela Guatemalan lanean.

Espainiako Enbaxadak Europar Batasunaren Filtro taldean<sup>15</sup> parte hartzen du, gatazka sozialen jarraipena eginez. AECIDek (Garapenerako Nazioarteko Elkarlanaren Espainiako Agentzia) badu alor horretarako jardunbide egokien esku-liburu bat.

Europar Batasuneko Filtro taldea EBren 2004ko Zuzentarauka ezartzeko sortu zen. Arau horiek giza eskubideen defendatzaileei buruzkoak ziren. 2005ean ekin zion lanari. Guatemalan dauden EBko enbaxada guztiek hartzen duten parte, baita Norvegiak, Suitzak eta NBGEGKBk ere.

Taldea defendatzaileekin biltzen da eta haien lan-testuinguruari buruzko informazioa jasotzen du. Informazio hori alderatu egiten dute Guatemalako instituzioekin.

Judizializazioei eta kriminalizazioari dagokienez, *Giza eskubideen defendatzaileei buruzko estatuaren instantziaren* berri ematen digute. Artikulazio-espazio honetan Barne Ministerioak, Ministerio Publikoak eta COPREDEHek hartzen dute parte. Helburua defendatzaileen aldeko neurriak eta jarduerak zehaztea da. Hasiera batean proiektuan parte hartu zuten giza eskubideen aldeko erakundeek utzi egin zuten, babesik ematen ez zuela iritzita. Lana kazetarien egoeraren inguruan egin da nagusiki, baina beste profil batzuk ere barne hartzen saiatzen ari dira.

Esaten digutenez, **mehatxurik handienak lurra eta lurraldea babesten duten liderren kontrakoak** dira. Kasuak laguntza ematen duten elkarteekin batera lantzen dira. Egun arrisku handiko 8 kasu dituzte. Filtro taldeak gomendioak egiten dizkie misio-buruei. Jarraipena NBGEGKBren bidez egiten da.

Izapide diplomatikoak konfidentzialak dira. Horrek zenbaitetan haserrea pizten du defendatzaileen artean, egiten ari den lanari buruzko galderak egiten baitizkiote beren buruari.

Gainera, EBk badu larrialdiko kasuetarako funts bat. Horiek era indibidualean ala Guatemalako edo nazioarteko erakundeek bidez eskura daitezke.

2014an bisitak egin dira *in situ* eta defendatzaileen iritziz jardunbide egokia da hori.

Azkenik, bi behar aipatzen dizkigute: giza eskubideen defendatzaileak babesteko funtsak handitzea bata, eta fiskaltza berezituak (Giza Eskubideena eta bestelakoak) hiriburutik kanpo ere zabaltzea bestea.

---

<sup>15</sup> Europar Batasuneko Filtro taldeak enbaxadetako bigarren postuan dauden pertsonak biltzen ditu. Giza eskubideen auziari jarraipena egiteaz arduratzen da.

## ***Eragile publikoek kontaktzen digutena***

Mirza Arriagak, duela gutxi izendatutako Giza Eskubideen Batzordearen presidenteak, Guatemalako lehen alderdikoak (Indarberritutako Askatasun Demokratikoa), kontatu digu bere lehen tasunen artean dagoela, besteak beste, hezkuntzan giza eskubideak lantzeko lege-ekimen bat onartzea. Proposamenaren helburua da ikasleek Guatemalako legedia ezagutzea, beren oinarrizko eskubideak ez ditzaten urratu eta, beharrezkoa denean, haiek betetzea exijitu dezaten. Funtzionarioei giza eskubideak azaltzeko prestakuntza ere beharrezkoa dela uste du.

Onartzen du gatazka soziala sortu dela ustiapen proiektuen eta zentral hidroelektrikoen inguruan, baina uste du biolentziaren sorburua landa-eremuko biztanleak eta haien adostasun falta direla, eta ez Estatua. Era berean, nazioarteko lankidetzatik komunitateetara bideratzen diren baliabideak zaintzeko beharra azpimarratzen du, batzuk beste helburu batzuetarako erabiltzen baitira, besteak beste, armak erosteko.

Giza Eskubideen Prokuradorea Guatemalako Kongresuko bilkurak onartzen du bost urteko epe bakar baterako. Ez dago inongo erakunde, instituzio edo funtzionarioen menpe eta independentziaz jokatzeko du. Prokuradoreak eta bere laguntzaileek (2) eskumena dute Giza Eskubideen urraketen keza edo erreklamazioetan esku hartzeko, Guatemala osoan.

Bere egitekoen artean daude Guatemalako Konstituzioko II Tituluan jasota dauden eskubideak babestea, baita Guatemalako onartu eta berretsi dituen nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan zehaztutakoak ere. Instituzio eta administrazio publikoen jardura gainbegiratzeaz arduratzen da eta funtzionarioak zigortu edo posturik gabe uzteko eskatzeko ahalmena du, baita prozesu penalak hasteko ere.

Giza Eskubideen Prokuradoretzak (PDH) adierazi du kezkatuta dagoela giza eskubideen defendatzaileak sufritzen ari diren **kriminalizazioarengatik**, gehienetan **ingurumenaren** eta **herri indigenen** eskubideen defentsarekin lotuta. Azken horien eskari nagusia da haien lurretan edo inguruan neurri administratiboak, ekonomikoak edo produktiboak ezarri aurretik kontsultatuak izateko duten eskubidea. Adierazten digutenez, oso zaila da indigenen mundu ikuspegiko lurralde bateko parte izateko eskubidea errespetatzea egun nagusi den garapen-proiektuaren testuinguruan.

Kontatu digute Bake Akordioak sinatu zirenetik, Terrorismoaren aurkako Fundazioak ondo antolatutako estigmatizazio-kanpaina bat egin duela Nazio Batuen, nazioarteko ikuskatzaileen eta giza eskubideen defendatzaileen aurka, biztanleen jarrera-aldaketa eragiteko asmoarekin.

**Gizarte-gatazkak** herritarrekiko arreta faltan eta haien eskariak behin eta berriz ez betetzean dauka iturria. Kontuan hartzeko da biztanleak desberdintasun eta gizarte-bereizketako egoeran bizi direla. Hein handi batean, gatazka hauek sortu dira informazio gutxi eman delako baliabide naturalen



*Euskal Ordezkaritza Claudia López David prokuradore andrearen laguntzailearekin (Giza Eskubideen Prokuradoretza).*

esplorazio- eta ustiapen proiektuen inguruan, elektrizitatea sortzeko proiektuen inguruan (zentral hidroelektrikoak batez ere) eta nekazaritza estentsiboaren inguruan. Proiektuok indigenen herri eta komunitateak bizi diren lurraldeetan jarri dira martxan, gehienbat.



PDHk gatazka hori areagotzen duten hainbat faktore identifikatu ditu: a) lurraldetasuna izatea eta hartaz gozatzea, batik bat lurra eta zorupeari dagokionez; b) Baliabide naturalen (tartean, ura) erabilera mugatu izana; c) biztanleak kontsultatu gabe gobernuak jarraitu duen politika: zorupea Guatemalako zein atzerriko enpresei ematea; d) Mota honetako irabazietan, herri eta komunitateek bizi duten gizarte- eta politika-bazterketa; e) inbertsio hauek sortzen duten gizartearen zatiketa, agerikoa eta berria dena; f) proiektu hauen aurkako mugimenduen eta erresistentzia-mugimenduen ordezkarier kriminalizazioa.

Prokuradoreak, Konstituzio Gortean 2013ko maiatzean aurkeztu zuen *"Herri indigenen eskubideak ez errespetatzea"*<sup>16</sup> Amicus Curiae-an, esan zuen gai nagusietako bat **kontsultarako eskubidea ez errespetatzea**<sup>17</sup> dela, **proiektu hidroeletrikoak edo ustiapen-industriak martxan jarri aurretik**: *"Herri indigenek kontsultatuak izateko eskubidea dute, eta hori beste oinarritzko eskubide batzuen luzapena edo defentsa da, tartean jabetza-, kultura-, osasun-, sinesmen-eskubideak, eta abar daudelarik"*.

Kontsultak egiteko marko juridikorik ez dagoenez, herri indigenen adierazpen-askatasunean eta manifestazio-eskubidean oinarritutako prozesu herritarrek jarri dituzte martxan haien iritzia emateko, eta *"fede oneko komunitate-kontsultak"* izena eman diete.

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CoIDH) adierazi du fede oneko kontsulta eta afektatutako komunitateen gizarte-kohesioa hausteko jarduerak bateraezinak direla. Azken hori egiteko hainbat teknika daude: liderrak erostea, lidergo paraleloak ezartzea edo komunitateetako banakakoekin negoziatzea, nazioarteko praktiken aurkako jarduerak hirurak.

2004tik hona 78 kontsulta egin dira fede onez edo aurrez eta modu aske eta informatuan, horietariko bost 2014an. Hiru 169 Hitzarmenaren esparruan egin ziren eta udal-gobernuaren baimenarekin egin ziren: Santiago Atitlán (Sololá), Santa María Chiquimula (Totonicapán), eta Cantel (Quetzaltenango). Bestea Teculutánen (Zacapa) egin zen, Alderdi Politikoen eta Udal Kodearen Legearen (bertan herritarren parte-hartzerako neurriak daude ezarrita, haien iritzi librea eman dezaten) eta 169 Hitzarmenaren arabera.

Kontsulta horiek ez dira lotesleak, eta horregatik PDHk berresten du Estatu derrigortua dagoela nazio-mailan zein nazioartean herrien kontsulta-eskubidea betetzeko, aipatutako Amicus-ean adierazten den bezala.


**Ingurumen-inpaktuaren azterketei** dagokienez, haien ikuspuntuak eta metodologiak okerrak direla uste dute. Ez dira bitarteko egokia Gobernuak esplorazio eta ustiapenerako lizentziak eman ala ez erabakitzeke. *"Urteko txostena: Giza Eskubideen Egoera eta 2014ko Jardueren Memoria"* dokumentuan esaten dute salaketak jaso dituztela azterketen harira eta proposatzen dute Gobernuak aurrekontu bat prestatzea azterketak kontsultore independenteek egin ditzaten, horrela *"proiektu hauen arriskuak eta onurak era inpartzialean zeintzuk diren jakiteko; bertako herritarren kultura kontuan hartuz, izan ditzaketen giza eragin ekonomiko, sozial eta kulturalak neurtuz. Kontuan izan beharreko beste alor bat da luraren gaineko jabetzari buruzko segurtasuna izan beharra eta proiektu hauek ezarri, martxan jarri eta erabiltzeak eragin ditzakeen galera eta kalteentzako kalte-ordainak ezartzea"*.

Azkenik, ordezkaritzari informazioa eman diote alde batek eskatuta **esku hartu duten banakako kasuetan**. Adibide bezala, liderren kriminalizazio-kasuak aipatzen dituzte, giza


<sup>16</sup> PDH. Amicus Curiae. "Herri indigenen eskubideak ez errespetatzea". Dokumentuan honako gai hauek landu dira: "La Vega I" zentral hidroeletrikoa, 1149-2012 txostena; "Garraioa Zabaltzeko Plana 2008-2018", 5237-2012 eta 5238.2012. txosten metatuak. Aipua lehen orrialdeari dagokio.

<sup>17</sup> Kontsulta-eskubideak, herritarren parte hartzea bermatzen duen mekanismo nagusi bezala, hiru aldaera ditu, lege nazionaletan ezarri dagoen bezala: a) herri-galdeketa, Konstituzioaren 173. artikuluan arautua; b) udalerriko kontsulta, Udal Kodearen 63.etik 66.era doazen artikuluetan ezarria, eta c) Hiriko eta Landa-Eremuko Garapenerako Batzorde-Sistemaren Legearen 26. artikuluan. Era berean, herri indigenen kontsulta ezartzen da LANEren herri indigenen eskubideen 169 Hitzarmenaren 6. artikuluan.

eskubideak defendatzeko eskubidea, erresistentzia-eskubidea, askatasuna eta, kasu askotan, justizia eta epaiketa justu baterako eskubidea urratzen dituztelako. Egoera horiek konpontzeko, poliziarekin bildu dira, babes-neurriak eskatu dituzte eta gomendioak egin dituzte.




Iturria: PDH



Iturria: PDH

**CONFLICTIVIDAD POR: RECURSOS NATURALES DEL ESTADO y RECHAZO DE LAS COMUNIDADES CUYA PROTESTA SOCIAL TIENDE A SER CRIMINALIZADA.**

DATOS OFICIALES (2009)  
MEM, Dirección de Minería



Iturria: PDH

Presidentearen Giza Eskubideen Batzordea (COPREDEH) exekutiboak guatemalarren giza eskubideak sustatzeko eta babesteko duen instituzioa da. 2012ko irailaren 3tik Antonio Arenales Forno jn. da COPREDEHren burua.

COPREDEHn ez daude guztiz ados Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CoIDH) arriskuan dauden defendatzaileentzat ezartzen dituen **babes-neurriekin**. Arrisku larrian dauden defendatzaile batzuei babes-neurriak kentzea justifikatzen dute, oso epe luzean erabili direnez behin-behinekoak izateari utzi diotelako eta "desnaturalizatuta" geratzen direlako eta herrialdearen beharrek bateraezina den baliabide-galera dakartelako. CoIDHren Entzutegiko parte-hartzaile bezala, sute dute era koordinatuan lan egin beharko luketela eta defendatzaileek aurkezten dituzten kasuak eta PDH ezagutu beharko lituzketela. Horrela, salatu egiten dute instituzioen arteko deskoordinazioa dagoela eta giza eskubideen aldeko elkarteekin elkarriktaririk ez dagoela. Babes-neurri eraginkorragoak eskatzen dituzte.



Euskal Ordezkaritza Antonio Arenales Forno jaunarekin (Bake Idazkaria eta COPREDEHren Presidentea)

Ez dute uste giza eskubideen defendatzaileek **kriminalizazioa** pairatzen dutenik. Onartzen dute atxiloteta-aginduak eman direla, baina kasu horietan lege-urraketak egon direla diote. Adibide bezala, zentral hidroelektrikoetako langileek sufritu dituzten erasoak jarri dituzte.

Herrialdean bi egiturazko arazo ikusten dituzte: **herri indigenen** pobrezia-egoera eta **instituzioen desagerpena**, hiru hamarkada baino gehiago iraun duen gatazka dela-eta. Trantsizio demokratikoko azken 18 urteetan aurrera egin den arren, oraindik asko falta da Zuzenbide Estatu demokratiko bat izateko, batik bat adierazpen-askatasunari eta parte-hartzeko politikoari dagokionez. Autoritarismotik demokrazia formalera igaro da Guatemala. Legaltasun eta gardentasunaren aldetik zalantzan jartzen ez diren hauteskunde libreak izan arren, parlamentuan ez dago aniztasunik (emakumeak, herri indigenak).

Guatemalako *fiskal nagusi eta Ministerio Publikoaren buru* izendatu zuten Thelma Esperanza Aldana andrea 2014ko maiatzean. Kargua hartzerakoan, instituzioa indartzeko, eskualde guztietara heltzeko eta fiskaltza berezituak sortzeko erronka hartu zuen. Gainera, 1.280.000 kasuko berandutza judiziala eta tramitean dauden 500.000 kasuei ere aurre egin behar die.

Fiskaltza Justizia Administrazioari laguntza-erakundea da, oso garrantzitsua zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko eta Zuzenbide Estatu indartzeko.

**Giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoetarako**, Ministerio Publikoak badu Giza Eskubideen Fiskaltza bat. Horrek hainbat agentzia edo unitate fiskal berezitu ditu honakoen kontrako giza eskubideen urraketak ikertzeko:

- Giza eskubideen defendatzaileak
- Kazetariak
- Sindikalistak
- Justizia langileak
- Giza eskubideak
- Gatazka armatua
- Diskriminazioa

A septiembre 2014 la Fiscalía recibió 1 mil 075 denuncias, como indica la tabla siguiente:

**Tabla 15**  
**Denuncias presentadas en el MP**  
**Fiscalía de Derechos Humanos**

Unidades fiscales	Denuncias
Unidad de activistas	53
Unidad de derechos humanos	109
Unidad de sindicalistas	652
Unidad de operadores de justicia	188
Unidad de periodistas	73
Total	1,075

Fuente: DIDH/PDH con datos de la Fiscalía de Derechos Humanos del MP al 30.09.2014

Bat datoz PDH bezalako erakunde eta instituzioekin edo NBGEGKB bezalako nazioarteko erakundeekin azkenaldian **giza eskubideen defendatzaileen aurkako kriminalizazioa** orokortu dela adieraztean, oinarririk gabeko prozesu penalak areagotu direlako.

**Tabla 14**  
**Denuncias presentadas ante el MP**  
**contra defensoras y defensores de derechos humanos**

Nombre	No. de expediente	Tipo penal / sindicación
Oscar Roderico Morales García	MP0012-2012-60276 MP001-2012-108216 MP015-2013-7757 MP297-2013-3645 MP0010-2002-19	Usurpación de funciones Coacción, amenazas Amenazas <i>No es delito</i> Lavado de dinero y otros activos
Artemio Rubén Herrera Herrera	MP001-2012-134389  MP001-2013-61843  MP211-2009-2011	Detención ilegales, allanamiento, coacción, incendio, atentado Plagio o secuestro, coacción, amenazas, instigación a delinquir Detenciones ilegales, amenazas, instigación a delinquir
Telma Yolanda Oqueli Véliz	MP001-2014-38020 MP018-2012-361	Coacción, amenaza Lesiones leves, detenciones ilegales, coacción, amenazas.
Aura Lolita Chávez Ixcaquic	MP226-2012-2167 MP226-2012-3422 MP226-2013-3296 MP238-2006-923 MP238-2008-1036	Lesiones leves, amenazas Coacción Coacción, amenazas Difamación Amenazas, apropiación y retención indebidas
Alonso de Jesús Torres Catalán	MP018-2012-361	Lesiones leves, detenciones ilegales, coacción, amenazas.
Valerio Carrillo Sandoval	MP018-2012-361	Lesiones leves, detenciones ilegales, coacción, amenazas
Jorge Adalberto López Reyes	MP001-2011-30666 MP018-2012-361	Uso de documentos falsificados Lesiones leves, detenciones ilegales, coacción, amenazas

Fuente: DIDH/PDH con datos del Ministerio Público al 22.09.2014

Ordezkaritzari helarazi diote Fiskaltzak kasu hauetan duen jardunbide objektiboa eta esaten digute prozesuak azkar edo motel doazela egoeraren eta konplexutasunaren arabera. Berandutza duten kasu guztietatik, 500.000 tramitatzen ari dira oraindik.

Giza Eskubideen Fiskalak dio ez dute jarraibide espezifikorik defendatzaileen kasuetarako.

Eta prebentzio-jardueraren eskumena besteak beste Barne Ministerioak duela adierazi digute. Ministerio Publikoak ez du horretarako baliabiderik.

## SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA<sup>18</sup>

### ***Giza eskubideen aldeko erakundeek kontatzen digutena***

*OASISek (HIESAren aurrean Sexualitate Integral bat sutatzeko Elkarte)*<sup>19</sup> esaten digu kezkatuta daudela sexu- eta genero-aniztasuneko biztanleen kontrako diskriminazio eta biolentziarengatik. Horren arrazoi nagusia Guatemalako gizartean errotuta dauden homofobia, lesbofobia, transfobia eta matxismoa dira. Estatuak, ahula denez, ezin izan ditu giza eskubideen alorrean dituen nazioarteko konpromiso guztiak bere eta horrek jarrera horiek areagotu ditu.

*"Informe Alternativo en relación al cumplimiento de los DESC para las Comunidades de la Diversidad Sexual y de Género en Guatemala"*<sup>20</sup> dokumentuan azaltzen dutenez LGTTBI

<sup>18</sup> OASISen arabera, Sexu- eta Genero-aniztasuneko Komunitateak lesbiana, gay, transgero, transexual, intersexual eta asexualen elkarteak dira, hau da, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edota sexu-ezaugarriengatik testuinguru soziokulturalak partekatzen dituzten pertsonen elkarteak.

<sup>19</sup> OASIS izan da 2015ean Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Hartzeko programan parte hartu duen erakundeetako bat. Jorge López Sologaitoari, erakunde zuzendari exekutiboari, Euskadin harrera egin zitzaion.

<sup>20</sup> Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen aurrean aurkeztu zuten txostena, Estatuak aurkeztutako Txostenen Azterketaren alorrean, Eskubide, Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EESKNI) 16. eta 17. artikuluen harira.



pertsonek<sup>21</sup> egunero sufritzen dute jazarpena eta de factoko zigorra beren sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik eta sexu-ezaugarriengatik.

Eraso horiek ikertu eta auzitara eramateko orduan, oztopo larria da **gorroto-krimenak** Zigor Kodean delitu bezala tipifikatuta ez egotea. Horregatik eta salaketa faltarengatik (jendaurrean jartzeagatik zigorren beldurrak ala justizia sisteman konfiantzarik ez izanak sortuak) ia ezinezkoa da krimenen benetako kopurua ematea, eta horiek normalean beste biolentzia mota batzuen ondorio gisa aurkezten dira.

Hilketak dira erregistratzen diren gorroto-krimen gehienak. Gainera, muturreko krudeltasun zantzuak ageri dira hilketa gehienetan. Beste eraso batzuk orokorragoak dira eta atentzio gutxi ematen dute LGTTBI pertsonen bizitzan egunero gertatzen baitira. Pertsona horiek bazterketa soziala bizi dute eta beren giza eskubideak mugatu egiten dituzte, bereziki familiari, hezkuntzari, lanari, gizarte segurantzari, osasunari eta sexu-eskubideei dagozkienak.

Argi uzten dute sexu- eta genero-aniztasuneko komunitateen arazoa ez dela GIBa eta ez dela hori haien eskaria. Eta salatu dute Gobernuak osasunaz baino ez duela hitz egiten, beste eskubideak baztertuz eta berdintasun egoerako babes ekonomiko, juridiko eta soziala lortzeko ezer egiten ez duela. Berdintasun egoeran, GIBen transmisioa minorizatu egiten da.

Esaten dute Guatemalako legeak LGTTBI pertsonen eskubideak urratzen dituela eta familiak edukitzea galarazten diela beren sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik.

Era berean, kritikatzten dute hainbat elkarte pribatuk, Judaren Lehoia Etxeak eta Jehova Jirhe Birgaikuntzarako Elkarte Kristauak kasu, **sexu-orientazioaren aldaketa terapiak** praktikatzeari, homosexualitatea "sendatzeko" asmoarekin, Guatemalako estatuaren baimenarekin. Salaketak jarri arren, funtzionatzen segitzen dute birgaikuntzarako (drogak eta alkohola) etxe ebanjelikoen itxurapean. Haietan jendea pilatuta dago, eta tratatu txarrak eta hilketa kasuak ere gertatu dira.

Homofobia insituzioek onartu zuten Giza Eskubideen Prokuradorearen (PDH) 2004ko Urteko Txostenean. Bertan, arrazismoarekin, xenofobiarekin eta beste diskriminazio negatiboko aldierazpenekin lotutako fenomeno sozial bezala aurkeztu zuten. Orduetik, OASISen arabera, PDH sexu-orientazioa eta genero-identitatea kontuan izan ditu gorroto-krimenak eta giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa sailkatzeko, baina sistema argirik gabe orain arte.

2014ean Sexu Aniztasuna Defendatzeko Bulegoa martxan jarri zen. Aurrera pausoa dela onartzen dute, baina aldi berean prebentzio-lanik egiten ez dela esaten dute.

Azkenik, COPREDEHek duen babes-unitateak ez funtzionatzea kritikatzten dute.



Jorge López Sologaitoa jauna, OASISen zuzendaria, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez hartzeko Euskal Programan hartua, Nazio Batuen Errelatorearekin, Giza Eskubideen defendatzaileen egoeraren inguruko bileran.

<sup>21</sup> Lesbianak, gayk, transexualak, transgenderoa, bisexualak eta intersexualak.

Hauek dira haien eskariak:

- Sexu- eta genero-aniztasunaren kontrako gorroto-krimenak tipifikatzea.
- Fiskaliak sexu-aniztasunaren kontrako gorroto-krimen bezala identifikatu dituen 64 kasuen jarraipena egitea.
- Sexu- eta genero-aniztasuneko komunitateei babes sozial, ekonomiko eta juridikoa emateko beharrezko neurriak sustatzea.
- Diskriminazio eta intolerantzia ororen kontrako Hitzarmen Interamerikarra eta AEEren giza eskubideen, sexu-orientazioaren eta genero-identitate eta adierazpenaren Ebazpena berrestea.

### ***Eragile publikoek kontaktzen digutena***

Instituzio guztiek aho batez esaten digute Guatemala herrialde atzeratua dela sexu- eta genero-aniztasunaren eskubideen onarpenean, eta gaiari buruz hitz egiten hastea aurrera pauso garrantzitsua dela.

COPREDEHk mahai bat sortu zuen 2013 hasieran Estatuko instituzioekin eta gizarte zibileko erakundeekin LGTTBI biztanleen eskubideak bermatuko dituen politika publiko bat sustatzeko. PDH politika horiek prestatzen laguntzen ari da, baina alde biek onartzen dute oso motel doazela.

PDHren ekintza nagusia Sexu Aniztasuna Defendatzeko Bulegoaren sorrera izan da. 2014ko apirilean martxan jarri zen bulego honen egitekoa da LGTTBI pertsonen eskubideak babestu eta sustatzea. Horretarako, hainbat ekintza egiten dituzte: salaketak jaso, gomendioak egin (kartzeletan, eskoletan, eta abarretan), tailerrak eskaini eta espazio bateratuak sortu Nazio Batuekin edo Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrarekin (CoIDH), NBGEGKBrekin elkarlanean arituz.

Aipatzeko aurrerapausoetako bat izan da erakunde sozialekin batera egindako protokoloa, LGTTBI herritarrek identifikatzeko Polizia Nazional Zibilaren Biktimei Arreta emateko Bulegoan jasotzen diren salaketetan. Horrek salaketak era sistematikoan biltzea ahalbidetuko du ondoren agerian uzteko, baita segurtasuna bermatzeko prebentzio neurriak proposatzea ere. 2015etik aurrera dokumentu hori erabiliko dute Biktimei Arreta emateko Bulego guztietan. Instituzio horrek onartzen du salaketa gutxi daudela ikusezin bihurtutako krimenak direlako eta errealitate hori ez dagoelako eztabaida publikoan une honetan. Uste dute ezinbestekoa dela gorroto-krimenak tipifikatzea, baina irizten diote ezinezkoa dela Kongresuan gehiengoa eskuineko talde kontserbadoreek osatzen dutenean.

Fiskal Nagusi eta Ministerio Publikoko Buruak 2-2015 Agindu Orokorra eman zuen. Horrek diskriminazio-delituen jazarpen penalerako jarraibideak ematen ditu eta sexu-orientazioa edo genero-identitatea aipatzen ditu diskriminazio horien artean. Agindu horrek aurrera pausoa dakar LGTTBI herritarren segurtasunaren kontrako delituak ikusarazteko. Izan ere, delitu horiek zigorrik gabe geratu dira urte luzeetan jazarpen penala egiteko eskumena zuten instituzioek jarraibide argirik ez zutelako. Iaz sexu-aniztasunarekin lotutako 64 gorroto-delitu zenbatu zituzten.

Aurrerapen horiek gorabehera, denek uste dute elkarteen mugimendua ahula dela eta informazio eta salaketa gutxi dagoela matxista, homofobia eta lesbofobia den herrialde batean.

## **GOBERNUAREN IRITZIA**

COPREDEHren bidez helarazi zion gobernuak iritzia Euskal Ordezkaritzari. Erakunde horrek dioenez, amnistia adostutako bakearen elementuetako bat izan zen. Adierazten dute Bake Akordioak sinatu eta urteetara, gatazka piztu dela Amnistia Legearen eta genozidioari buruzko eztabaidaren harira. Uste dute eztabaida horrek herrialdea zatitu egiten duela eta, haien iritziz, itxi egin beharko litzateke. Onartzen dute hilketak gertatu direla, baina genozidioa, gizadiaren aurkako krimenak eta bortxazko desagerpen delituak ukatzen dituzte, 1980ko hamarkadan tipifikatu gabeko krimenak zirelako.

### **Egindako bisitak**

#### **MEMORIAREN ETXEA - Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa - CALDH**

Memoriaren Etxea, CALDHek sustatutakoa, Guatemalako memoria historiko berreskuratu nahi duen museo bat da. Alde zaharreko etxe zahar batean kokatua dago eta herrialdearen historia kontatzen du maien zibilizaziotik hasi eta barneko gatazka armaturaino, Espainiako kolonizazio garaiko genozidio, iraultzak eta diktadurak aipatuz.

"Ez Ahazteko" lelopean, beraien helburua da Guatemalako biztanleek eta bereziki gazteek herrialde desberdin eta baketsu bat eraikitzeko borroka eta erresistentzia ezagutzea.

Álvaro Arzú presidente ohiak ez zuen inoiz jaso Gertakari Historikoak Argitzeko Batzordearen txostena. Egindako krimenen zigorgabetasuna % 96koa da; egoera horretan, biktimei laguntzen diete egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak eskatzen ari diren honetan.

Testuingurua azaltzeko atalean genioen bezala, 2001ean CALDHek Justizia eta berradiskidetzarako Elkarteari (AJR) lagundu zion Efraín Ríos Montten kontrako genozidio, gerra-krimen eta gizadiaren kontrako krimenen salaketan. Elkarte hori genozidioa gertatu zen bost eskualdetako 22 komunitatek osatzen dute eta salaketa horren ondorioz epaituko zuten Ríos Montt 2013an.

2013an Epaitegi Konstituzionalak emandako epaiaren arabera epaietaren parte bat errepikatu behar bada ere, uste dute epaiak bizirik atera zirenen errekonozimendua ekarri duela. Izan ere, horiek ausardia eta duintasun handiz isiltasuna hautsi dute. Nabarmentzen dute epaiketa ez dela prozesuaren amaiera eta prozesu politiko eta komunitarioek aurrera jarraitzen dutela.



Memoriaren Etxea, CALDH (Guatemala Hiria)

Uste dute eskuin muturra debate faltsu bat elikatzen ari dela, polarizatutako gizarte batean oinarritua (komunistak kapitalisten aurka, militarrek gerrillarien aurka) eta horrek benetako errealitatea estali nahi du: justizia biktimentzat.



Euskal Ordezkaritza Memoriaren Etxean (Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa - CALDH) Guatemala Hiria



Independentzia judizialik ez dela saltzen dute, eta gobernuak testuinguru horretan egin nahi duela genozidioari buruzko eztabaida.

Esaten digute, halaber, mehatxu batzuk jasotzen dituztela, gehienbat Terrorismoaren aurkako Fundazioaren eskutik, baina haiekin elkarlanean dabiltzan erakundeek jasotzen dituztela mehatxu gehien. Uste dute epaiketa prozesu barnean egonda, erasoak agerikoegiak izango liratekeela.

### **POLIZIA NAZIONALAREN ARTXIBO HISTORIKOA - AHPN**

CEHren lana biktimen testigantzetan oinarritu zen, Gobernuak esana zuelako ez zegoela barne gatazka armatuaren garaiko Segurtasun Indar eta Kidegoen artxiborik.

2005ean, ordea, PDHko langile batzuek, ustekabeen, desagertutako Polizia Nazionalaren artxibo handi bat aurkitu zuten, dokumentazio historiko eta administratiboarekin. Dokumentuak oso egoera txarrean pilatuta zeuden 1980ko hamarkadaren hasieran Polizia Nazionalaren Ospitalea eraikitzeko asmoa zeukaten instalazioetan, Guatemala Hiriko 6. zonaldean.

Artxiboak 80 milioi orrialde ditu gutxi gora behera eta 1882 eta 1997 arteko aldia hartzen du, hau da, Polizia Nazionala sortu zutenetik Bake Akordioengatik desegin zuten arte<sup>22</sup>. Garrantzi handia dute, dudarik gabe, ikuspuntu historiko, kultural eta zientifikotik, baina bereziki giza eskubideen eta memoria historikoaren berreskurapenaren ikuspuntutik. Instalazioak egoera kaskarrean daude, eraikina bukatu gabe abandonatu zutelako duela 25 urte baino gehiago eta Estatuaren segurtasun indar askok erabili zituzten, besteak beste, Hazienda Guardiak, Operazio Berezien Komandoak, Polizia Nazionalaren Seigarren Brigadak. Biktimen senideen eta giza eskubideen aldeko elkarteen arabera, erakunde hauek oraindik argitu ez diren giza eskubideen urraketa larriak eragin zituzten.

Gainera, instalazio hauei kartzela sekretu bezala erabili ote zituzten tankera hartu diete. Guatemalan gauza jakina da "Uhartea" izenez ezagutzen zen tortura-etxe bat existitzen zela. Bertan, Estatu terrorismoa sufritu zuten ehunka pertsona atxilotuta eduki zituzten legearen kontra; torturatu eta epaiketarik gabe exekutatu zituzten.

Horregatik guztiagatik, esanguratsuak dira instalazio hauek Memoria Historikoaren Berreskurapenerako Zentro bilakatzeko egiten ari diren esfortzuak.

Egia- eta justizia-eskariei dagokienez, hasieratik lehenetsi ziren gerraren ondorioak gainditu eta berradiskidetze nazional sendo baten oinarriak jartzeko ahaleginak. Hori dela eta, 1975 eta 1985 urteen arteko dokumentuak lehenetsi ziren, gatazkaren aldirik larriena izan baitzen. Geroago, lana gatazkaren urte guztiak hartzeko zabalduko da (1960-1996).

Egia ezagutzea eta, bereziki, biktimen eta senideek informazioa eta justizia jasotzeko duten eskubideak AHPNren konpromiso eta betebeharra izan dira.

Horren artxibo ofizial handiaren edukiak era digitalizatuan kontsultatzeko aukera izateak errotik aldatzen du memoria historikoa berreskuratzeko prozesua, gertatutakoaren egia ezagutzeko aukerak zabaltzen ditu eta gizadiaren kontrako krimenen erantzuleen kontrako epaiketak martxan jartzea ahalbidetzen du.

2009an titulartasuna Barne Ministeriotik Kultura eta Kirol Ministeriora igaro zen, Erdiko Amerikako Artxibo Orokorren zuzendaritzapean. Orduan hasi zen AHPNren Informazioa Kontsultatzeko Unitatea funtzionatzen, eta horrela lortu zen helburu bat betetzea, digitalizatutako dokumentuen edukia era publikoan ezagutaraztea, hain zuzen ere. Gaur egun

---

<sup>22</sup> Bake Akordioek Polizia Nazionala deseginarazi zuten. Horren ordez Polizia Nazional Zibila sortu zen, Espainiako Guardia Zibilaren aholkularitzarekin.

17.320.000 dokumentu daude digitalizatuta. AHPNren erabiltzaile nagusiak honako hauek dira: Ministerio Publikoa, PDH, bizirik atera ziren pertsonak eta biktimen senideak, instituzio ofizialak, gizarte zibileko erakundeak, erakunde akademikoak eta Guatemalako zein atzerriko ikertzaileak. Ikerketa eta jazarpen penalerako dokumentuak eskaintzeaz gain (Ministerio Publikoarentzat, PDHrentzat eta beste eskatzaileentzat), AHPNk artxibo-analisiak eta xehetasun teknikoen zerbitzuak ere ematen ditu, hainbat prozesu judizialetan eskatu direnak.

AHPNko fitxetan 1.200.000 pertsona baino gehiago ageri dira. Hori gatazka garaiko populazioaren % 25 baino gehiago da eta poliziaren kontrola noraino iritsi zer frogatzen du.

Gaur egun informazioa zabaltzeko ahaleginak egiten ari dira, informazioa udalerrietara hurbilduz, hala biktimen senideek hiriburura joan gabe kontsultak egin ahal izateko aukera izan dezaten.

Hiru gobernu desberdinek onartu dute lan hori egitea, zentsurarik edo oztoporik gabe. Baina babesik eman gabe. Álvaro Colom presidente ohiak bakarrik bisitatu du AHPN. Egungo gobernuak babes ekonomiko sinbolikoa eman du eta onartzen dute elkarriketarako prest daudela.



Euskal ordezkariak Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoaren (AHPN) barruan

Prozesu hori posible izan da nazioartearen laguntza politiko, tekniko eta finantzarioari esker (Eusko Jaurlaritza izan da laguntzaileetako bat) baita PNUD bezalako nazioarteko organismoek ere.

Era berean, mehatxu batzuk jasotzen ari direla ere adierazi dute, batik bat militar ohien eta haien laguntzaileen partetik. Horiek botere handia dute oraindik Guatemalan eta gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzte.

Uste dute Justizia Trantsizionala prozesu osoa dela eta ezin duela inongo elementurik ahaztu: egia, justizia, adiskidetzea eta berriz ez

gertatzeko bermeak, gobernuak genozidioarentzako, gizadiaren kontrako krimenentzako eta torturarentzako amnistia emateko jarrera azaldu duen honetan.

## ONDORIOAK

Bilerak egin, lekukotzak jaso eta dokumentazioa aztertu ondoren, ordezkaritzak

### ADIERAZTEN DU

- Giza eskubideen, emakumeen, herri-indigena eta -nekazarien eta lurraldea eta sexu-dibertsitatea defendatzen dituzten pertsonen aurkako mehatxu, kriminalizazio eta estigmatizazioen aurrean kezka, begirunea eta giza eskubideen defentsa baketsuarekiko elkartasuna adierazten ditu.
- Guatemalako erakundeek giza eskubideen arloan adierazi dituzten aurrerapausoak pozez hartzen ditugu, adibidez: kazetariak laguntzeko mekanismoa, sexu-dibertsitatearen errespetuari dagokionez aurrera egiteko erakunde-arteo mahaiaren sorrera edota PDHn edo Ministerio Publikoan unitate espezializatuak sortzea.
- Erakundeei babes-mekanismoak garatzen jarraitzeko eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonentzako laguntza eta errespetua indartzeko eskatzen diegu, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan, giza eskubideak sustatzen eta defendatzen lan egiten duten nazioarteko eta Guatemalako organismo, elkarte eta erakundeekin batera.
- Modu erreal eta efektiboan, komunitate indigenei eta nekazariei kontsulta libre eta informatua egitea, Konstituzioak eta LANEren 169 Hitzarmenak behartzen duten eran, historikoki haiei dagokien lurretan edozer prozesutan hasi aurretik.
- Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen egoerari adi jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, baita beren lana segurtasunez egin ahal izan dezaten zaintzeko konpromisoa ere.

Aldi Batez Babesteko Programari heldutako pertsonen erakundeen harira, **zenbait kezka espezifikoko** helarazten ditu:

### KEZKA ESPEZIFIKOAK

- OASISekin lotura duten pertsonak sufritzen dituzten mehatxuak, haiengatik ezin baitute LGTTBI pertsonen giza eskubideen aldeko lana segurtasunez egin.
- Emandako babes-neurrien ahuldadea.

Alde horretatik, gomendio hauek egin behar dira:

### GOMENDIOAK

- Sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko gorrotozko delituak Zigor Kodean tipifikatzea.
- Segurtasunerako beharrezkoak zaizkien babes-neurriak ematea, haien egoerari modaltuta.
- OASISekin lotura zutelakoan garbitutako pertsonen hilketak argitzeko ikerketak abian jartzea.
- Fiskal bakarra ipintzea programak babestutako defendatzailea zati den kasu guztiak ikertzen.

Hala, Euskal Ordezkaritzarentzat, funtsezkoa da giza eskubideen aldeko lana bermatzea, parte-hartze politikorako espazioak zabaltzea eta defendatzaileak era publikoan onartzea, oinarrizkoa baita gizarte demokratikoa, berdintasunezkoa eta giza eskubideek indarrean izango dituen eraikitze, azken hori ezinbesteko urratsa erasoak prebenituko badira.

*Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Euskal Programak, eragin eta babes politikorako tresna gisa, Guatemalako elkarten gidaritzapean dauden proiektuak indartzen*

jarraituko du. Alde horretatik, programan parte hartzen duten erakunde publiko eta sozial guztiek arretaz jarraituko dute prozesua, eta babestutako pertsonen eta haien erakundeen egoerei etengabeko jarraipena egingo diete.